









Irisgarritasuna eta inklusioa

Ikasle guztiek ikasteko baliabide eta jarduerak eskura ditzaketela bermatzea, baita premia bereziak dituztenek ere. Arlo digitalean, ikasleen itxaropen, trebezia, erabilera eta uste okerrak, baita tresna digitalak erabiltzeko mugak ere (testuinguruarenak, fisikoak edo kognitiboak), aintzatestea eta horiei erantzutea.

Jarduerak

- ◆ Ikasle orori ematea teknologia eta baliabide digital egokiak eskuratzeko aukera, hala nola ikasle orok erabiltzen diren teknologia digitalak eskura dituela bermatzea.
- ◆ Estrategia pedagogiko digitalak hautatu eta erabiltzea, ikasleen testuinguru digitalari erantzuten dietenak, hala nola testuinguruak teknologia erabiltzeko ezartzen dituen muga (eskuragarritasuna, kasu), gaitasun, itxaropen, jarrera, uste oker eta erabilera okerrei.
- ◆ Teknologia eta estrategia digitalak erabiltzea, hala nola laguntza-teknologiak, laguntza berezia behar duten ikasleentzat diseinatuak (hala nola desgaitasun fisiko eta mentalak eta ikasteko nahasmenduak dituzten ikasleentzat).
- ◆ Balizko irisgarritasun-arazoak kontuan hartu eta horiei erantzutea, baliabide digitalak hautatu, moldatu edo sortzean, eta tresna edo metodologia alternatibo edo konpentsagarriak ematea premia bereziak dituzten ikasleentzat.
- ◆ Diseinu-printzipio jakin batzuk erabiltzea, irakasteko erabiltzen diren baliabide eta ingurune digitalak irisgarriagoak izan daitezen.
- ◆ Etengabe ikuskatzea eta hausnartzea ea egokiak diren irisgarritasuna hobetzeko aplikatzen diren neurriak, eta estrategiak horren arabera egokitzea.

Bilakaera		Gaitasun-mailari buruzko adierazpenak
Hasiberria (A1) 	Irisgarritasunaz eta inklusioaz arduratzea.	Iruditzen zait ikaskuntzan teknologia digitalak erabilia are zailago izango dela desabantaila-egoeran dauden ikasleentzat parte hartzea eta besteen mailari eustea.
Esploratzailea (A2) 	Irisgarritasun- eta inklusio-arazoez jabetzea.	Ulertzen dut zeinen garrantzitsua den ikasle guztiak erabiltzen diren teknologia eskuratu ditzaketela bermatzea. Jabetzen naiz teknologia digitalek irisgarritasuna oztopatu edo hobetu dezaketela.
Integratzailea (B1) 	Irisgarritasunari eta inklusioari heltzea.	Ulertzen dut teknologia digitalek nola zatitzen dituzten ikasleak eta ikasleen egoera sozial eta ekonomikoak zer-nolako eragina duten teknologiaren erabileran. Bermatzen dut ikasle orok eskura dituela erabiltzen ditudan teknologia digitalak. Badakit zer teknologia digital konpentsagarri erabil daitezkeen laguntza berezia behar duten ikasleekin (hala nola desgaitasun fisiko eta mentalak eta ikasteko nahasmenduak dituzten ikasleekin).
Aditua (B2) 	Irisgarritasuna eta inklusioa bermatzea.	Ikasleen testuinguru digitalera (hala nola erabiltzeko denbora-mugara eta eskura duten gailu motara) egokitzen diren estrategia pedagogiko digitalak hautatzen ditut. Balizko irisgarritasun-arazoak kontuan hartu eta horiei erantzuten diet, baliabide digitalak hautatu, moldatu edo sortzean, eta tresna edo metodologia alternatibo edo konpentsagarriak ematen ditut premia bereziak dituzten ikasleentzat. Teknologia eta estrategia digitalak erabiltzen ditut, hala nola laguntza-teknologia, ikasleen irisgarritasun-arazoei, hala nola ikusteko eta entzuteko arazoei, aurre egiteko.
Liderra (C1) 	Irisgarritasuna eta inklusioa hobetzea.	Ikasleen teknologia digitalen erabilera, gaitasun, itxaropen, jarrera, uste oker eta erabilera okerretara egokitutako estrategia pedagogiko digitalak hautatzen eta erabiltzen ditut. Diseinu-printzipio batzuk erabiltzen ditut irakaskuntzarako erabiltzen diren baliabide eta ingurune digitalen irisgarritasuna hobetzeko, letra-tipoari, tamainari, koloreei, hizkuntzari, diseinuari eta egiturari dagokienez. Etengabe ikuskatzen eta hausnartzen dut ea egokiak diren irisgarritasuna hobetzeko aplikatzen diren neurriak, eta estrategiak horren arabera egokitzen ditut.
Aurrendaria (C2) 	Irisgarritasun eta inklusiorako estrategiak berritzea.	Estrategiak berriro diseinatzen, berritzen eta haietaz hausnartzen eta hitz egiten dut, hezkuntza digitalean denek aukera berdinak izatea eta inklusioa bermatzeko.










Desberdintzea eta pertsonalizatzea

Tresna digitalak erabiltzea ikasleen askotariko ikaskuntza-premiei erantzuteko, ikasleei aukera emanez norik bere abiaduran aurrera egiteko eta norik bere ikaskuntza-ibilbide eta -helburuei jarraitzeko.

Jarduerak

- ◆ Teknologia digitalak erabiltzea ikasleen premia bereziei erantzuteko (dislexia, AGHA eta aparteko talentua duten ikasleak, kasu).
- ◆ Ikasteko bide, maila eta abiadura bat baino gehiago jartzea, ikasketa-jarduera digitalak diseinatu, hautatu eta aplikatzean.
- ◆ Banakako ikasketa-planak egitea, eta teknologia digitalak erabiltzea horien lagungarri.

Bilakaera		Gaitasun-mailari buruzko adierazpenak
Hasiberria (A1) 	Ziur ez egotea teknologia digitalek ikaskuntza desberdintzeko eta pertsonalizatzeko duten ahalmenaz.	Ez dakit teknologia digitalek nola lagundu diezadaketen ikaskuntza-aukera pertsonalizatuak ematen.
Esploratzailea (A2) 	Teknologia digitalek ikaskuntza desberdintzeko eta pertsonalizatzeko duten ahalmenaz jabetzea .	Badakit teknologia digitalak ikaskuntza desberdintzen eta pertsonalizatzen lagundu dezaketela, hala nola jarduerak zenbait maila eta abiadurataraz egiteko aukera eskainiz.
Integratzailea (B1) 	Teknologia digitalak erabiltzea ikaskuntza desberdindu eta pertsonalizatzeko.	Ikasketa-jarduera batzuk hautatzen eta erabiltzen ditut, hala nola galdera sortak eta jolasak, ikasleei aukera ematen dietenak nor bere abiadura aurrera egiteko, zailtasun-maila aukeratzeko eta/edo behar bezala ebatzi ez diren jarduerak berriro egiteko.
Aditua (B2) 	Teknologia digital multzo bat modu estrategikoan erabiltzea ikaskuntza desberdindu eta pertsonalizatzeko.	Ikasketa- eta ebaluazio-jarduerak diseinatzean, hainbat motatako teknologia digitalak erabiltzen ditut, neuk egokitzen eta taxutzen ditudanak, premia, maila, abiadura eta gustuei erantzuteko. Ikasketa-jarduerak sekuentziatu eta aplikatzean, ikasteko bide, maila eta abiadura bat baino gehiago jartzen ditut, eta malgutasunez egokitzen ditut estrategiak, inguruabar edo premiak aldatu ahala.
Liderra (C1) 	Alderdi guztiak kontuan harturik eta modu kritikoan desberdintzea eta pertsonalizatzea ikaskuntza.	Ikasle eta/edo gurasoekin batera, ikasketa-plan pertsonalizatuak egiten ditut, ikasleei aukera ematen dietenak beren ikaskuntza-premia eta -gustuei jarraitzeko, baliabide digital egokien laguntzarekin. Hausnartzen dut ea erabiltzen diren irakaskuntza-estrategiak zenbateraino diren eraginkorrak ikaskuntza desberdindua eta pertsonalizatua sustatzeko, eta irakaskuntza-estrategiak eta jarduerak digitalak horren arabera egokitzen ditut.
Aurrendaria (C2) 	Desberdintzeko eta pertsonalizatzeko estrategiak berritzea , teknologia digitalak erabiliz.	Teknologia digitalen bidez hezkuntza pertsonalizatzeko estrategia pedagogikoak berriro diseinatzen, berritzen eta haietaz hausnartzen eta hitz egiten dut.









Ikasleen partaidetza aktiboa

Tresna digitalak erabiltzea gai baten inguruan ikasleen partaidetza aktiboa eta sormenezkoa sustatzeko. Estrategia pedagogikoetan, teknologia digitalak erabiltzea ikasleen zeharkako abileziak, hausnarketa eta sormen-espresioa sustatzeko. Ikaskuntza mundu errealeko testuinguru berrietara zabaltzea, ikasleak inplikatzeko dituztenak jardura praktikoetan, ikerketa zientifikoan edo irtenbide konplexuetan, edo aktiboki gehiago inplikatzeko dituztenak gai konplexuetan.

Jarduerak

- ◆ Teknologia digitalak erabiltzea kontzeptu berriak modu motibatzaile eta erakargarrian bistaratu eta azaltzeko, hala nola animazioak eta bideoak erabiliz.
- ◆ Ikasteko ingurune eta jardura digital motibatzaile eta erakargarriak erabiltzea, hala nola jolasak eta galdera sortak.
- ◆ Irakaskuntza-prozesuaren erdigunean jartzea teknologia digitalen erabilera aktiboa.
- ◆ Teknologia digitalak erabiltzea ikasleei aukera emateko modu aktiboan parte hartzeko lantzen ari diren gaietan, hala nola zentzumen ugari erabiliz, objektu birtualak manipulatu eta problemaren xehetasunak aldatuz beronen egitura aztertzeko.
- ◆ Teknologia digital egokiak hautatzea ikaskuntza aktiboa sustatzeko ikaskuntza-testuinguru jakin batean edo ikasketa-helburu jakin baterako.
- ◆ Hausnartzea ea erabiltzen diren teknologia digitalak egokiak diren ikasleen ikaskuntza aktiboa areagotzeko, eta estrategiak eta hautuak horren arabera egokitzea.

Bilakaera		Gaitasun-mailari buruzko adierazpenak
Hasiberria (A1) 	Teknologia digitalak gutxi erabiltzea ikasleak parte hartzera bultzatzeko.	Ez ditut teknologia digitalak erabiltzen ikasleak motibatuzeko edo parte hartzera bultzatzeko, edo oso gutxitan.
Esploratzailea (A2) 	Teknologia digitalak erabiltzea ikasleak parte hartzera bultzatzeko .	<p>Teknologia digitalak erabiltzen ditut kontzeptu berriak modu motibatzaile eta erakargarrian bistaratu eta azaltzeko, hala nola animazioak eta bideoak erabiliz.</p> <p>Ikasketa-jarduera digital motibatzaile eta erakargarriak erabiltzen ditut, hala nola jolasak eta galdera sortak.</p>
Integratzailea (B1) 	Ikasleen artean teknologia digitalen erabilera aktiboa sustatzea.	<p>Teknologia digitalen erabilera aktiboa jartzen dut irakaskuntza-prozesuaren erdigunean.</p> <p>Teknologia digital egokienak hautatzen ditut ikasleen partaidetza aktiboa sustatzeko ikaskuntza-testuinguru jakin batean edo ikasketa-helburu jakin baterako.</p>
Aditua (B2) 	Teknologia digitalak erabiltzea ikasleek modu aktiboan parte har dezaten lantzen ari diren gaian .	<p>Teknologia digital multzo bat erabiltzen dut ikaskuntza-ingurune apropos, aberats eta eraginkor bat sortzeko, hala nola zentzumen bat eta ikasteko modu eta estrategia bat baino gehiago baliatuz eta jarduera motak eta taldeen osaera metodikoki aldatuz.</p> <p>Hausnartzen dut ea erabiltzen diren teknologia digitalak egokiak diren ikasleen partaidetza eta ikaskuntza aktiboa areagotzeko.</p>
Liderra (C1) 	Alderdi guztiak kontuan harturik eta modu kritikoan aplikatzea ikaskuntza aktiborako estrategiak.	<p>Ikaskuntza-prozesuan, teknologia digitalak hautatzen, diseinatzen, erabiltzen eta antolatzen ditut, ikasleak lantzen ari diren gaian modu aktibo, irudimentsu eta kritikoan inplikarazteko duten ahalmenaren arabera.</p> <p>Hausnartzen dut ea erabiltzen diren teknologia digitalak egokiak diren ikasleen ikaskuntza aktiboa areagotzeko, eta estrategiak eta hautuak horren arabera egokitzen ditut.</p>
Aurrendaria (C2) 	Berrikuntzak egitea ikaskuntza aktiborako estrategia digitaletan.	Ikasleak modu aktiboan parte hartzera bultzatzeko estrategia pedagogikoak berriro diseinatzen, berritzen eta haietaz hausnartzen eta hitz egiten dut.